

EXCERPTA

24. zenbakia

1988-maiatza

gaiak

orrialdeak

Greko-euskarazko gramatika- konposaketa(Orixe).....	493
Hesiodo-ren Teogonia.....	494-495
S.Joan Krisostomo eta paganoen ohiturak eta pentsakera.....	496-500
Caesar:"De Bello Gallico".....	501-504
Euskal herrietako armarriak (latinezko idazkunak).....	505
Definitiones,etymologiae,explicationes, e Sancti Augustini scriptis depromptae....	506-511
De vita exemplarium presbyterorum vasconum:(X)J.T.IZURRATEGI.....	512
Greziako Mitologia (barne-orrietako eraskina)	

'Αρτι =berri.

artíγamos=ezkonberri

artigenḒs=jaioberri

artítokos= idem

artitókos=erdiberri

'Αεί =beti

aeílogos=betiberrizu

aeilogía=betisolas

Grekoz &εῖ -rekinosotutakoak oso gitxi dira, euskaraZ beti-rekin bezelaxe. Betijai, betiraute (eternidad, erdi herrikoia). Betiberandu (lerro hauen idazleari ipini zioten goitizena, alegia)

Euskal ebakerarako, bigarren atalaren lehenengo silaba grave egin behar da.

"Siempreviva" itzuli nahi bagenu, bigarren atalaren lehenengo silabari azentua kendu beharko litzaioke e do solte utzi, elkarketarik egin gabe.

Orixe, 1942

(jarraitzeko)

Εἶσε δὲ μιν κρύψασα λόχῳ· ἐνέθηκε δὲ χερσὶν
 ἄρπην καρχαρόδοντα· δόλον δ' ὑπεθήκατο πάντα.
 Ἦλθε δὲ νύκτ' ἐπάγων μέγας Οὐρανός, ἀμφὶ δὲ Γαίῃ
 ἱμεῖρων φιλότητος ἐπέσχετο καὶ ῥ' ἐτανύσθη
 πάντῃ· ὁ δ' ἐκ λοχεοῦ πάϊς ὠρέξατο χεῖρι
 σκαίῃ, δεξιτερῇ δὲ πελώριον ἔλλαβεν ἄρπην
 μακρὴν καρχαρόδοντα, φίλου δ' ἀπὸ μῆδεα πατρὸς
 ἐσσυμένως ἤμησε, πάλιν δ' ἔρριψε φέρεσθαι
 ἐξοπλίω· τὰ μὲν οὖν τι ἐτώσια ἔκφυγε χεῖρός·
 183 ὄσαι γὰρ βραθάμιγγες ἀπέσσυσθαι αἱματέσσαι,
 πάσας δέξατο Γαῖα· περιπλομένων δ' ἐνιαυτῶν
 γείνατ' Ἐρινὺς τε κρατερὰς μεγάλους τε Γίγαντας,
 τεύχεσι λαμπομένους, δολίχ' ἔγχεα χερσὶν ἔχοντας,
 Νύμφας θ', ἄς Μελίας καλέουσ' ἐπ' ἀπείρονα γαῖαν.
 Μῆδεα δ' ὡς τὸ πρῶτον ἀποτμήξας ἀδάμαντι
 κάββαλ' ἀπ' ἠπείροιο πολυκλύστῳ ἐνὶ πόντῳ,
 ὧς φέρετ' ἀμ πέλαγος πουλὺν χρόνον, ἀμφὶ δὲ λευκὸς
 ἀφρὸς ἀπ' ἀθανάτου χρόος ὤρνυτο· τῷ δ' ἐνὶ κούρῃ
 ἐθρέφθη· πρῶτον δὲ Κυθήροισιν Ζαθέοισιν
 ἔπλητ', ἐνθεν ἔπειτα περιβόητον ἔνετο Κύπρον.

Ezkutalekuan gorderik utzi zuen; eskuetan hagin zorroz-
 dun igitaia, utzi ere. Eta iruzur guztia azaldu zion. Or-
 tze handia etorri zen, gaua atzetik dakarrena. Eta maita
 tu beharrez Lurrari hurbildu zitzaion alde guztietan
 zabaldu. Orduan semeak bere ezkutalekutik aitari ora
 tu zion ezkerreko eskuz; eskuinez, berriz, igitai izuga-
 rri handia, hagin zorrozduna, hartu zuen; behingoan ebaki
 zizkion aita maiteari barrabilak eta atzerantz jaurti-
 ki; ez ziren alferrik iraitziak izan eskutik. Erori zi-
 ren odol tantak Lurrak hartu zituen. Urteak joan urteak
 etorri, Ero (furia) indartsuak, Digante handitzarrak sortu
 zituen, armez distiratsuak, eskuetan lantza luzeak dara-
 matzatenak eta Ninphak lurraren zabaldi amaigabea Me-
 liak deitzen dituztenak. Altzairuz lotsariak ebaki eta
 berehalaxe lehorretik itsas-uhinetara jaurtikiak luza-
 roan ibili ziren hara eta hona kresal-gainea; harik e-
 ta haragi hilezkorretik apar zuria sortu arte; bertatik
 neskata bat jaio zen. Lehenengo eta behin Kitera agur-
 garriarengana joan zen; handik gero itsasoz inguratuta-
 ko Txipre aldera jo zuen.

(vv.: 174-193)

πάντα περι τῶν ἐν οὐρανοῖς διαλέγονται, ἐτέραν ἡμῖν ζωὴν εἰσάγοντες καὶ βίον ἄλλον, καὶ πλοῦτον, καὶ πενίαν, καὶ ἐλευθερίαν, καὶ δουλείαν, καὶ ζῶην, καὶ θάνατον, καὶ κόσμον, καὶ πολιτείαν, πάντα ἐξηλλαγμένα. (Οὐ καθάπερ Πλάτων, ὁ τὴν καταγέλαστον ἐκείνην πολιτείαν συνθεῖς, καὶ Ζήνων, καὶ εἴ τις ἕτερος πολιτείαν ἔγραψεν, ἢ νόμους συνέθηκεν. Καὶ γὰρ αὐτοὶ οὐκ ἅπαντες ἐδείκνυντο οὗτοι, ὅτι πνεῦμα πονηρὸν καὶ δαίμων τις ἄγριος πλεμῶν ἡμῶν τῇ φύσει, καὶ σωφροσύνης ἐχθρὸς, καὶ εὐταξίας πολέμιος, πάντα ἄνω καὶ κάτω ποιῶν, ἐνήχησεν αὐτῶν τῇ ψυχῇ. "Ὅταν γὰρ κοινὰς πᾶσι τὰς γυναῖκας ποιῶσι, καὶ παρθένους γυμνώσαντες ἐπὶ τῆς παιδείας ἀγῶσιν ἐπὶ θεῶν ἀνθρώπων, καὶ λαθραίου κατασκευάζωσι γάμους, πάντα ὁμοῦ μιγνύντες καὶ συνταράττοντες, καὶ τοὺς ὄρους τῆς φύσεως ἀνατρέποντες, τί ἕτερον ἔστιν εἰπεῖν; ἅπαντα εὐρήματα καὶ παρὰ φύσιν τὰ λεγόμενα ἡμῖν ἢ φύσις, οὐκ ἀνασχιμένη τῶν εἰρημένων

S. Joan Krisostomo

5. Καὶ οὐκ ἂν ἔγοις εἰπεῖν, ὅτι διὰ τὸ μικρὰ εἶναι ταῦτα καὶ χαμηλὰ, εὐπαράδεκτα γέγονεν ἅπανσι. Καὶ γὰρ πολλὰ ταῦτα ἐκείνων ὑψηλότερα. Παρθενίας μὲν γὰρ ἐκείνοι οὐδὲ ὄνομα οὐδὲ ὄνομα ἐφραντάσθησαν οὐδὲ ἀκτημοσύνης, οὐδὲ νηστείας, οὐδέ τινος ἄλλου τῶν ὑψηλῶν.

Lurra alde batera utzirik, zeruetakoei buruz ari dira denetan, bestelako bizitza eta bizikera guri agertuz, aberastasuna eta txirotasuna, askatasuna eta morrontza, bizitza eta heriotza, mundua eta portaera bestela. azalduz. Ez Platon-ek legez, harako hiri barregarria asmatu bait zuen, edo Zenon-ek edo beste inork bezala, bere hiria idatziz edo legez asmatuz. Hortik denek erakutsi zuten izpiritu gaiztoa, gure izaeraren etsai bortitza den deabrua, zintzotasunaren arerio edo zuhurtasunaren aurkakoa, dena azpikoz gora jarriz, haien gogoaz jabetu zela. Emakumeak, dezentzakoak direla denak aitortzean, neskatxak biluzik gizonen begi-aurrean palestrara daramatzatenean, ezkutuan-go ezkontzak onartu eta dena nahasiz eta azpikoz gora jarriz izakeraren mugak ezabatzen dituztenean, zer beste rik esan liteke?

... ..

Eta ez esan gauzok txikiak eta ezerezak direlako denentzat egiteko errazak direnik. Hauek, bada, haienak baino askoz ere bikainagoak dira. Birjintasunari buruz, esatera ko, haiek ez izenik ezta bazenik ere; berdin txirotasunaz, barauaz edo beste puntu sakonez.

... ..

καταγελαστότερον τῆς πολιτείας ἐκείνης, ἐν ἣ μετὰ τῶν εἰρημένων μα-
 ρίους ἀναλώσας στίχους ὁ φιλόσοφος, ὥστε δυνηθῆναι δεῖξαι τί ποτέ ἐστὶ
 τὸ δίκαιον, μετὰ τῆς μακρηγορίας, καὶ ἀσαφείας πολλῆς τὰ εἰρημένα ἐνέ-
 πλησεν, ὅπερ εἰ καὶ τι συμφέρον εἶχε, σφόδρα ἀχρηστον ἔμελλεν εἶναι τῶ
 τῶν ἀνθρώπων βίῃ; Ἐἰ γὰρ ὁ γεωργός, καὶ ὁ χαλκοτύπος, καὶ ὁ οἰκο-
 δόμος, καὶ ὁ κυβερνήτης, καὶ ἕκαστος ἀπὸ τῆς τῶν χειρῶν τρεφόμενος
 ἐργασίας, μέλλοι τῆς τέχνης μὲν ἀφίστασθαι καὶ τῶν δικαίων πόνων, ἀνα-
 λίσκειν δὲ ἔτη τόσα καὶ τόσα, ὥστε μαθεῖν τί ποτέ ἐστὶ τὸ δίκαιον¹ καὶ
 πρὶν ἢ μαθεῖν πολλάκις φθῆσθαι λιμῶ διαφθοαίς, καὶ ἀπελεύσεται διὰ τὸ
 δίκαιον τοῦτο, μήτε τῶν ἄλλων τῶν χρησίμων μηδὲν μαθῶν, καὶ βίαιον
 θανάτῳ καταλύσας τὸν βίον. Ἄλλ' οὐ τὰ ἡμέτερα τοιαῦτα· ἀλλὰ καὶ τὸ
 δίκαιον, καὶ τὸ πρέπον, καὶ τὸ συμφέρον, καὶ πᾶσαν τὴν ἄλλην ἀρετὴν ἐπι-
 βραχέσι καὶ σαφέσι συλλαβῶν ῥήμασιν, ἐδίδαξεν ἡμᾶς ὁ Χριστός· ποτι-
 μὲν λέγων, ὅτι· Ἴν δυνὶ ἐντολαῖς ὁ νόμος καὶ οἱ προφῆται κρέμανται
 τουτέστι, τῆ τοῦ Θεοῦ ἀγάπῃ, καὶ τῆ τοῦ πλησίον· ποτέ δὲ λέγων, Ὅσα
 ἂν θέλητε ἵνα ποιῶσιν ὑμῖν οἱ ἄνθρωποι, καὶ ὑμεῖς ποιεῖτε αὐτοῖς. Οὗτος
 γάρ ἐστιν ὁ νόμος καὶ οἱ προφῆται. Ἄπερ καὶ γηπόνῳ, καὶ οἰκέτῃ, καὶ
 γυναικὶ γήρᾳ, καὶ παιδί αὐτῷ, καὶ τῷ σφόδρα ἀνοήτῳ δοκοῦντι εἶναι
 πάντα εὐσύνοπτα καὶ ῥάδια καταμαθεῖν. Τοιαῦτα γὰρ τὰ τῆς ἀληθείας

¹ Mt 22,40.

² Mt 7,12.

Zer ote liteke harako Errepublika hura baino barregarri-
 ago? Bertan, esandakoez gain philosophoak milaka hitz da-
 kartza, zuzena zer den erakutsi ahal izateko. Eta horren
 ondoren etorriaren etorriz eta ilunaren ilunez esandako
 ak nahasten ditu; eta horrela, ezer probetxuzkorik balu e-
 re, guztiz alferrekoa gertatuko litzateke giza-bizitzara
 ko. Nekazari, errementari, etxegile, pilotu batek edo beste
 edonork, bere esku-lanetatik bizi izanik, bere lanbide e-
 do ogibide duinari utzi eta urteak eta urteak emango ba-
 litu zuzena zer den ikastearren, lehenengo mila aldiz go-
 sez hilgo litzateke ikasi gabe, zuzentasun honek garbitu-
 rik, ezer probetxuzkorik ikasi gabe eta herio gogorrek
 bizitzaz gabeturik, Gurea (erlijioa) ez da horrelakoa; ai-
 tzitik, zuzena, egokia, onuratsua eta beste edozein birtu-
 te, zer den, hitz labur eta argitan bilduz irakatsi zigun
 Jesukristo-k. Halako batean diosku: Agindu bitan daude es-
 kegita legea eta iragarleak; hau da, Jaungoikoaren maïta-
 sunean eta lagun hurkoarenean. Eta berriz: Gizonek zuei e-
 gitea gura duzuen guztia, egiezue zeuok haiei. Hauxe dugu
 legea eta iragarleak. Guztiok ikusteko eta ikasteko erre-
 zak dirA, lugin batentzat, otsein batentzat, andre alargun
 batentzat, zein ume batentzat ere, eta guztiz adimen gabe
 koa dirudienarentzat ere bai. Egiari bait datxezko dire-
 nok.

Hizlari bikaina eta idazle oparoa, kristau gartsua eta Jaungoikozale sutsua. Eskutitzak, sermoiak, gutunak eta idatzi ugari eta mamintsuak. Nortasun bortitzeko gizona: eliztarren eta agintarien oker-bideak eta bekatuak gogorki salatzen zituen. Zer esanik ez, paganoen ekintza eta uste okerrak arbuiatzen are gogorrago da batzutan. Guzti hori zela eta erbesteratua eta nahigabetua sartu itan. Baina ez zuen amorerik ematen; bere buruarekin ere aski gogorra izaki.

Oratorian ikasia eta eskolatua; garaiko akatsak ere nabari zaizkio arlo horretan. Dena dela, Ekialdeko Eliz-Gurasoen artean handiena eta argitsuena.

Inguruko ohiturei buruzko eritziak era batera zein bestera epaitu, kondaira-lekukotasuntzat hartzekoak dira, e dondik begiraturik ere; horregatik dakartzagu orrialde hauetara.

Philosophoei buruz esaten duena epaitzean, hauxe eduki behar dugu kontutan: irakurriak zituela eta ederresteko ziren neurrian berak ere ederretsiko zituela; hala ere, badakigu Kristozale amorratua, itsua, zela; eta ikasi zuena Kristo eta Eliza Amaren alde baizik ez zuela erabiltzen. Hortik ezereztzat jotzea Kristo-rengan itsatsia egoteko balio ez zuen oro. Bestelako filosofo eta idazleek ez zuten alderdi bat du Krisostomo-k eta: enparau bertuteez gain, asketa itzala dela.

C. IULI CAESARIS DE BELLO GALLICO COMMENTARIUS PRIMUS.

I. ¹ Gallia est omnis divisa in partes tres, quarum unam incolunt Belgae, aliam Aquitani, tertiam qui ipsorum lingua Celtae, nostra Galli appellantur. ² Hi omnes lingua, institutis, legibus inter se differunt. Gallos ab Aquitanis Garunna flumen, a Belgis Matrona et Sequana dividit. ³ Horum omnium fortissimi sunt Belgae, propterea quod a cultura atque humanitate provinciae longissime absunt, minimeque ad eos mercatores saepe commeant atque ea, quae ad effeminandos animos pertinent, important, proximique sunt Germanis, qui trans Rhenum incolunt, quibuscum continenter bellum gerunt. ⁴ Qua de causa Helvetii quoque reliquos Gallos virtute praecedunt, quod fere cotidianis proeliis cum Germanis contendunt, cum aut suis finibus eos prohibent, aut ipsi in eorum finibus bellum ferunt.

⁵ Eorum una pars, quam Gallos optinere dictum est, initium capit a flumine Rhodano, continetur Garunna flumine, Oceano, finibus Belgarum; attingit etiam ab Sequanis et Helvetiis flumen Rhenum; vergit ad septentriones. ⁶ Belgae ab extremis Galliae finibus oriuntur; pertinent ad inferiorem partem fluminis Rheni, spectant in septentrionem et orientem solem. ⁷ Aquitania a Garunna flumine ad Pyrenaeos montes et eam partem Oceani, quae est ad Hispaniam, pertinet; spectat inter occasum solis et septentriones.

ATLANTE

Ἄτλας

Digantea, Japete eta Klimene ozeanarraren semea; batzutan Asia ozeanatarrena. Menezio, Prometeo eta Epimeteo, "gizon bortitzen" anaia. Tradizio batzuen arauerara, Urano-ren semea; beraz, Krono-ren anaia. Olimpotarren, izaki munstro eta neurgaitzen, aurreko jaino-belaunaldikoa.

Diganteen eta jainkoen borrokan parte hartu zuen eta Zeus-ek zigor hau ezarri zion: bere lepo gainean zeruzabaldiari eutsi behar ziola. Gehienetan, bere bizitoki a Sartalde urrunean, Hesperiden lurraldean, kokatzen da. Batzutan "Hiperboreotan" ere bai kokatu ohi da. Herodoto-k egiten du Atlante-ren lehenengo aipamena, Ipar-Afrikan dagoen menditzat hartuz. Perseo-k Gorgona hil ondoren itzuli zenean, Atlante harkaitz bihurtu zuen Medusa-ren burua aurkeztuz.

Zenbait seme-alaben aitatzat aipatzen da: Pleione-rekin Pleiadeak eta Hiadeak, eta Hesperidorekin Hesperideak izan omen zituen. Semeak, Hiante eta Hespero.

Geroagokoen burutazioek Atlante astronomotzat dute; gizona ortzeko legeak irakatsi zizkiela eta, jainkotu egin zuten. Batzutan hiru bereizten dira: Afrika-koa, Italia-ko bat eta beste bat Arkadia-koa, Mayoren aita, eta beraz, Hermes-en aitona.


Dardanus, Iliacæ primus pater urbis et auctor,
Electra, ut Graii perhibent, Atlantide cretus, 135
Advehitur Teucros; Electram maximus Atlas
Edidit, ætherios humero qui sustinet orbes.
Vobis Mercurius pater est, quem candida Maia
Cyllenæ gelido conceptum vertice fudit;
At Maiam, auditis si quidquam credimus, Atlas, 140
Idem Atlas generat, cæli qui sidera tollit.
Sic genus amborum scindit se sanguine ab uno.
His fretus non legatos neque prima per artem
Tentamenta tuî pepigi; me, me ipse meumque
Objeci caput et supplex ad limina veni. 145
Gens eadem, quæ te, crudeli Daunia bello
Insequitur; nos si pellant, nihil absore credunt,
Quin omnem Hesperiam penitus sua sub juga mittant.
Et mare, quod supra, teneant, quodque adluit infra.
Accipe daque fidem; sunt nobis fortia bello 150
Pectora, sunt animi et rebus spectata Juventus.

(P. Virgilio Marone "Aeneidos" liber VIII)

Quodsi nec fratris nec te mea gratia tangit,
at cæli miserere tui! Circumspice utrumque:
fumat uterque polus! Quos si uitlauerit ignis, 295
atria uestra ruent! Atlans en ipse laborat
uixque suis umeris candentem sustinet axem.
Si freta, si terrae pereunt, si regia cæli,
in chaos antiquum confundimur! Eripe flammis
siquid adhuc superest, et rerum consule summae! 300
Dixerat hæc Tellus (neque enim tolerare uaporem
ulterius potuit nec dicere plura) suumque
rettulit os in se proploraque manibus antra;
at pater omnipotens superos testatus et ipsum,
qui dederat currus, nisi opem ferat, omnia fato 305
interitura graui, summam petit arduus arcem,
unde solet nubes latis inducere terris,
unde mouet tonitrus uibrataque fulmina iactat;


(P. Ovidio Nasone "Metamorphoseon" liber II)

K.Juli Kesar-en
GALIA-ko GUDATEAZ
lehenengo azalpena.




Metopa : Athena. Herakles. Atlas

I.Galia osoa hiru zatitan banatzen da: eurotariko batean Belgiarrek bizi dira; beste batean Akitaniarrak; eta hiru garrenean, beren hizkuntzaz Keltarrak, eta gurean Galiarrak izena dutenak. Guztiok berezi dira euren artean hizkuntzaz, ohiturez eta legez. Galiarrak Akitaniarrendik Garona ibaiak bereizten ditu, eta Belgiarrendik Marne eta Sena ibaiek. Guztion artetik indartsuenak Belgiarrek dira, probintziako kultura eta giza-ohituretatik arrasurrun daudelako, merkatariek haiengana oso bakan heltzen direlako eta gogoak bigunkeriz hazteko direnak ere haiengana benetan oso gitxi eramaten dituztelako. Rhin ibaiaren bestaldean bizi diren Germaniarren auzokoak dira eta haiekin etengabeko gudaketan ari dira. Horregatik Helvetiarrek ere enparau Galiarrei kemenez aurrea hartzen diete, ia eguneroko ekinaldietan Germaniarrekin borrokan dihardutelako, edo beren lurretatik aldentzen edo eurok haien lurretan borrokan sartzen. Horietatik zati batek, Galiarrek dutela esan dugunak, Rhodano ibaian du hasiera, Garona ibaiak, Ozeanok eta Belgiarren mugek inguratua da. Eta gainera, Sekuanotarren eta Helvetiarren alderdietatik Rhin ibairaino hedatzen da. Iparraldera begira dago. Belgiarrek Galia-ko azkenengo mugetan hasten dira, Rhin ibaiaren behe-alderaino eta Iparraldera eta sortaldera begira daude. Akitania Garona ibaitik Pirineo mendietaraino doa eta Hispania aldera jotzen duen Ozeanoaren alderdiraino. Sartaldearen eta Iparraldearen artean kokaturik dago.



(Galiak Kesar-ren egunetan)



AXPE

LATINEZ: Duodecim fratres equites regem cingunt et liberant.

EUSKARAZ: Hamabi anaia zaldunek erregea inguratu eta askatu egiten dute.



AXPE

LATINEZ: Duodecim fratres congruunt atque liberant.

EUSKARAZ: Hamabi anaiek elkar hartu eta askatu egiten dute.

(AXPE biok Zeanuri aldeko abizenak jatorriz)

128 **MUGONEZ**: "Sed quod sequitur habet aliquid obscuritatis, quod aliquanto diutius exponendum est. Praeueni intempesta nocte, et clamavi. Plures codices non habent intempesta nocte, sed immaturitate: vix autem unus inventus est qui haberet geminam praepositionem, id est, in immaturitate. Immaturitas itaque hoc loco nocturnum tempus est; quod etiam vulgo dici solet hora inopportuna (quod non est maturum, id est, opportunum, ut agatur aliquid vigilando). Nox quoque intempesta, id est media, quando quiescendum est, hinc procul dubio nuncupata est, quia inopportuna est actionibus vigilantium. Tempestivum enim dixerunt veteres opportunum; et intempestivum inopportunum: a tempore ducto vocabulo, non ab illa tempestate, quae consuetudine Latinae linguae caeli perturbatio iam vocatur.

Quamquam isto verbo libenter utuntur historici, ut dicant, Eā tempestate, quod volunt eo tempore intelligi: et quod ait locutor egregius,

Unde haec tam clara repente Tempestatas
(Virg. Aen. IX, 19-20)

non caelum nimbis ventisque turbatum, sed magis subita et splendida serenitate fulgidum significavit hoc nomine. Quod ergo Graece dictum est ἐν ἀωρία, non uno verbo, sed duobus, id est praepositione et nomine; hoc nostri interpretes quidam dixerunt, intempesta nocte, plures, immaturitate, non duobus verbis, sed uno, cuius vocabuli nominativus est immaturitas; nonnulli vero in duobus verbis, sicut Graecus posuit, in immaturitate; ἀωρία quippe immaturitas est, ἐν ἀωρία, in immaturitate: tanquam si vellet etiam ille qui dixit, intempesta nocte, praepositione dicere geminata, in intempesta; ut una praeposi-

tio significet in qua hora, altera pertineat ad compositionem nominis. Nihil sane interest ad sententiam, utrum quis dicat egisse se aliquid galli cantu, an in galli cantu: ita nihil interest utrum intempesta, an vero in intempesta nocte, id est, in nocte intempesta clamasse se diceret. Graecus tamen in nocte intempesta dixit, quod idem valet si dicatur, in immaturitate, id est, in tempore nocturno immaturo. Hactenus de obscuro verbo fuerit disputatum; nunc videamus quis ipse sit sensus".

(Enarrationes in Psalmos, 118, XXIX, 3)

Gero datorrena ilun samar dago eta horrexegatik astizago azaldu behar da. Gaueko desordutan etorri nintzen eta oihuz hasi nintzen. Kodice askok ez dakarte gaueko desordutan, desorduan baizik: batxo agertu zen, nekez, praeposizio bikoitza zuena, hau da, desordua zenean. Desordua, bada, hemen gaueko tenorea da, herri xeheak ordu de segokia esaten dionā (hau da, sasoikoa, gau aldian egiteko egokia ez dena). Gaueko ezordua, hau da gau erdia, atsedenerako aldia dena, alegia, honezegatik deitua izan da, itzarrik daudenen ekintzerako desegokia delako. Antxinakoek garaikotzat mugonezkoa zuten; eta ezgaraikoa mugonezkoa ez dena: garaitik ateratako hitzez, ez ekaitzetik, latinez zeru nahasiari deitu ohi zaion hortatik.

Historialariek, hala ere, jakinaren gainean erabiltzen dute hitz hau, eta horrela esaten dute, aldi hartan, garai hartan esan nahi dutelarik; halaxe esan zuen hizlari bikainak,

Nondik nora, bat batean halako aldi(aro) argirik?
(Virg. Aen. 9, 19, 20)

ez, noski, lainoz eta haizez nahasiriko ortzea; aitzitik i-
zen horren bidez bat bateko eta baretasun ederrez zeru
dizditsua adierazi nahi izan zuen. Berori grekoz ἐν ᾧ
οἷα esana zen, ez hitz bakarrez, bikoitzez baizik, hau da pre-
posisizio eta izenez; hau gure itzultzaile batzuk gaueko
ezordutan esan zuten; gehienek, ordea, desorduan, bi hitzez
gabe batez; eta hitz horren nominatiboa desordua (immatu-
ritas da); banaka batzuk, ordea, berba bitan, grekoak bezala
xe, desordua zenean; ἄωπια, bada, desorduan da, ἐν ἄωπια
desordua denean: gaueko ezorduan esan zuenak ere, preposi-
zio bikoitzez esan gura izan balu legez, ezordua denean.
Preposisizio batek zein ordutan adierazteko eta eta bes-
teak izenaren elkarketa adierazteko balitz bezala. Esan-
gura aldetik ez du zerikusirik batek esateak zerbait e-
ginduela oilarrak jotzean edo oilarrak jotzen duenean: e-
ra berean ez du zerikusirik berak esateak oihu egin zue-
la ezorduan edo gaueko ezorduan, hau da gauez ezordua de-
nean. Grekoak, aldiz, gaueko ezorduan esan zuen; hori eta
ordu desegokian, hau da gaueko garai desegokian esatea de-
na da bat. Honaino berbaren iluntasunaz eztabaidan ari i-
zan gara; orain dakusagun esannahia bera.

Benetan bihurria gertatu zait atal hau, euskarara itzul-
tzerakoan.

Batetik latinez TEMPESTAS zentzun bikoitzeko berba da:

TEMPESTAS	{	garai, aro, sasoi (aldi)
		ekaitza

Eta, jakina, euskaraz ezin adierazi berba batez zentzun bi-
ak.

Bestetik, latinez (edo grekoz) preposisizioaren bidez adit-
zera ematen dena, IN + ablativo, euskaraz -AN (-ETAN) edo
-TZEAN atzizkien bidez egiten da. Eta hor berdintasunik e-
zin gorde.

Azkenik, San Agustinek horren inguruan egiten dituen joko
guztiak eta ematen dituen azalpen guztiak urrún samar gel-
ditzen zaizkigu itzulpenean. Beraz, oraingo hontan, euskaraz
koa lagungarri soila bezala erabil daiteke. Une guztietan
latinezko originala eduki behar da begien aurrean.

Dena dela, ni lehenengoa, ez nago bat ere ados egindako i-
tzulpenarekin; ez nagoela ados baino hobeki esan nezake ez
nagoela hain pozik. Hori dela eta, lan guzti hau liburu ba-
tera doanean, joan dadinean, berriro saiatu beharko naiz e-
uskal testoa hiribiltzen eta zorrotzen.

129 **ODOLA**: "Expressit latinus interpres verbo minus latino proprietatem tamen ex graeco. Nam omnes novimus latine non dici sanguines, nec sanguina; tamen quia ita graecus posuit plurali numero, non sine causa, nisi quia hoc invenit in prima lingua hebraea, maluit pius interpres minus latine aliquid dicere, quam minus proprie. Quare ergo pluraliter dixit: de sanguinibus? In multis sanguinibus, tanquam in origine carnis peccati, multa peccata intelligi voluit."

(Enarrationes in Psalmos, 50, 19)

Grekoz zetorren zehaztasuna latin-itzultzaileak hitz latin gaiztozko batez adierazi zuen. Denok dakigu eta, latinez ez dela esaten odolak (pluralean), ez odolak (plural neutroz). Alabaina, grekoak pluralean ipini zuelako, ez arrazoirik gabe, noski, jatorrizko hizkuntza hebreoan halan aurkitu zuelako baizik, itzultzaile onberak gurago izan zuen zerbait ez hain egokiro latinez esatea, zehaztasuna galtzea baino. Orduan, zergatik esan zuen pluralean: odoletatik? Odol asko esatean, haragi-bekatuaren jatorrian bezala, bekatu asko aditzera eman nahi izan zuen.

Latinez ODOLA, sanguis, sanguinis (maskulino)

Gure artean Leizarraga bat, esaterako, noraino da goresgarria: alderdi hortatik, eta noraino kritikagarria? Hizkuntza bien egoera arras desberdina kontutan izanik, jakina.

130 **ODOLA**: "Sanguina non est latinum: sed quia Graece positum est pluraliter, maluit ille qui interpretabatur sic ponere, et quasi minus Latine loqui secundum grammaticos, et tamen explicare veritatem secundum auditum infirmorum. Si enim diceret sanguinem singulari numero, non explicaret quod volebat: ex sanguinibus enim homines nascuntur maris et feminae".

(In Ioannis Evangelium Tractatus, II, 14)

Odolak (sanguina, neutro plural) ez da latina; hala ere grekoz pluralean zetorren eta, itzulpenaren egileak gurago izan zuen horrela ipini, eta gramatikalarientzat hain latin egokian ez mintzatu, eta horrela, entzule ikasigabeentzat, behintzat, egia argi eta garbi azaldu. Odola esanez gero, singularrean, alegia, ez zezakeen argitu nahi zuena: gizakiak, bada, odoletatik jaiotzen dira; arraren eta emearen odoletatik, noski.

Aurreko atalean esan digu San Agustin-ek latinez ez dela SANGUINES (pluralean) erabiltzen. Eta are gitxiago SANGUINA.

Sanguis, sanguinis hitzetik, plurala egitekotan sanguines litzateke, maskulinoa delako. Sanguina, ordea, inola ere ez; hori neutroaren amaiera litzatekeelako.

Beste batzutan ere esan digu orainarte, itzulpen kontuan behintzat, gehiago kezkatzen zuela entzulegoaren ulermenak gramatikalarien onspenak baino. Azken batean, Jaungoikoaren berbaren esangura lehenagokotzat izan zuen gramatika edo hizkuntzaren jatortasuna baino.

DE VITA EXEMPLARIUM PRESBYTERORUM VASCONUM

(Ex libro "Amets eta Egi" Klaudio Gallastegi sacerdotis
in linguam latinam translatum)

Juan Timoteo Izurrategi anno 1863 in Bilbao natus. In populo Elorrio quadraginta annis pastor animarum. Praedicator egregius fuit, tum hispano tum vasconum sermone.

Homo humilis et mitis corde, ad laborem semper paratus. Vasconum lingua complures libros scripsit: "Urteko igande guztietarako itzaldiak", id est, "Sermones ad omnes anni dies dominicas", inter alios.

Bello hispano civili confecto in Bilbao iudicatus est, ut multis aliis contigit.

Iudices, vero, postquam duodecim annorum carcere eum damnassent, interrogaverunt illum utrum aliquid dicendum haberet pro se; atque ille: "Grates agere vobis cupio, inquit; nam cum sim septuaginta et septem annos natus, longiorem senectutem mihi desideratis, quam eam quam ego optare ausus eram".

Non multum post, in Dueñas, in carcere sacerdotum, mortuus est sicut vixerat, corpore et anima in manibus Dei positus.

Hymnus

Beáte Pastor, Petre,
clemens áccipe
Voces precántum, crimi-
nümque vincula
Verbo resólve, cui potés-
tas trá dita
Aperíre terris cælum,
apértum cláudere.
Sít Trinitáti sempitér-
na glória,
Honor, potéstas atque
jubilátio,
In unitáte, quæ gubérnat
ómnia,
Per univérsta æternitá-
tis sácula. Amen.

Pedro Artzain dohatsu, entzun bihotz onez
gure ahots apalak; bekatu-lotura
zure hitzez askatu, zerua lurrari
zabal-izteko eman ahalmen-araura.

Betirako omena, ohorea eta
ahalmena, bai eta jaialdia ere
Hirutasunari, Bat den horri, guztia
darabil eta, beti beti, mendez mende.

+++

Hymnus

Egrégie Doctor, Paule,
mores instrue,
Et nostra tecum pectora
in cælum trahe:
Veláta dum merídiem
cernat fides,
Et solis instar sola regnet
cáritas.
Sít Trinitáti sempitér-
na glória,
Honor, potéstas atque ju-
bilátio,
In unitáte, quæ gubérnat
ómnia,
Per univérsta æternitátis
sácula. Amen.

Paul, irakasle bikain, ohiturak zuzen,
bihotzak zurekin bat zeruraino jaso:
fede ezkutua argitu eta maitasuna
nagusi egin arte, eguzkia antzo.

Betirako omena, ohorea eta
ahalmena, bai eta jaialdia ere
Hirutasunari, Bat den horri, guztia
darabil eta, beti beti, mendez mende.

Jon Gotzon Etxebarria

Gernika
